



LITERATURA. Obrak Joseba Jaka II. Literatur beka irabazi zuen, eta Durangoko azokako nobedadeetako bat da

Sarrionandia bakarrik falta zen

Durangon antolatutako irakurraldi batekin aurkeztu zuten, atzo arratsean, lurretako idazleak idatziriko lehen nobela

Estibalitz Ezkerra | IURRETA

«Aberrigabea, belauak azaldu zitueneko lekuetara ez da egungo itzuliko, nahinon bizi delarik arrotz bizi da, oroimenez eta perfekzio gogoz. Bere baitan daraman herrialdea inguruan adierazten zaion probintzia baino ederragoa eta duintsuagoa da. Horregatik bizi da erorrik gabe eta konformitatek gabe, aide legez eta hutsune gisa besterik gorpuzten ez den beste mundu bat mundurako asmatzen». 1989an Joseba Irazuri zuzendurik zihono *Aberrigabea* gogoeta-saio laburra argitaratu zuen Joseba Sarrionandiak *Ez gara geure baitakoak* liburuan (Pamiela). Erbestetik, 1985ean Martuteneko espetxetik ihes egin zutenetik, lurretakoa zebilen deseritrik idatzi zituen hitz haiek. Hitz saminak, hain zuzen, itzulerarekin amesten duen baina, aldi berean, hura gauzatzea ezinezkoa dela dakien baten eskutik ateratakoak.

Hamabi urte geroago, «beste mundu» horretatik heldu zaigu Sarrionandiak idatziriko lehen-dabiziko nobela, Joseba Jaka II. Literatur beka irabazi duena.



Izenburua: Lagun izoztua
 Egilea: Joseba Sarrionandia
 Argitaletxea: Elkarlanean
 Orri kopurua: 436
 Sinopsia: Oroimena gardu du Covik, izoztuta gelditu da Bluefidseko erbestean. Hura laguntzeko, Ekuadorrera eraman nahi du Manbel errefluxiatuen postariak. Bidaia, ordea, ez da erraza izango.

Berriro ere erbestea, herrimina, errefluxiatuen ezinegona eta sustrairik eza... lehen eskutik ezagutzen dituen gaiak heldu die *Lagun izoztua* eleberrian. Batean oroimena eta hitza galzten duen Goio da obrako protagonistetako bat, Bluefidseko erbestean *izoztuta* geratu den

persoia. Hari laguntzera doa Maribel, errefluxiatuen postaria. Ekuadorrera eraman nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltsuekin Andoni, Gbioeren ikaskide izandakoa eta hari oroimena berreskuratzen lagundua diezaiokeena. Bidaia, ordea, ez da inondik ere erraza izango. «*Odisea*-n Ulisesek etxera itzuli nahi du, baina bidaian hainbat gorabehera gertatuko zaizkio. Bada, *Lagun izoztua*-n ere antzeko egoera aurkitu du irakurleak», esan zuen Xabier Mendiguren Elizegik.

Idazlea gogoan

Liburu aurkezpen orok egilea du protagonista, «baina egoera dela-eta gaur [atzo] ezin dugu gure artean izan Sarrionandia», azaldu zuen Mendigurenek. Horregatik, euskal letren munduak ez duelako behin ere ahaztu lurretakoa, eta hura gogora ekartzeko modurik egokia zelako, *Lagun izoztua*-ren hainbat pasarte irakurri zituen. Elkarreko editorea ez ezik, Elkarlanean Fundazioko Mikel Arrizabalaga, Gerediaga elkarteoko presidenten Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Joseba Jaka litera-



Joxe Azurmendi, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Mikel Arrizabalaga eta Xabier Mendiguren Elizegi.

IAITZIA

Joxe Azurmendi | IDAZLEA

Sarrionandiak su hotza asmatu du

Jende asko zegoen, zalan-tza gabe, zain-zain, deskonfiantza apur batez apika, poesian eta narratiba laburrean hain esku dotorea erakutsi duen Sarririk, zer tamaina emango zuen testu lizean, nobela. Ez du inor desengainatuko. Nobela altua, ederra eskainiko dizue Durangon.

Egitasmoa bera bitxia, gututz originala. Eto hori, Sarrionandiaren kasuan gaiak a priori batiere originala ematen ez duenean: exilio politikoa. Baina gero gaiak —edo gairengatik gertatzen denak— apenas duen inportantziarik. Exilioa ideia da, gaia baino gehiago. Izenburua *Lagun izoztua* da: datozen gauzak behar diren bezala hartzeko giltza. Exiliatua izoztu bat da. Are exiliatua bere tankerako izoztua bihurtzen du inguruan mundu gutzia. Nobelan hotz egiten du. Bizitza arrunteko hainbat dimentsio endurtu egiten da. Ez ikintza nobela bat da, ez psikologikoa. Garrantzia unean-unean ikusten, pentsatzen, esaten edo isiltzen denak dauka.

Pertsonaiak ez datoz inondik, ez dute memoriarik, ez etorkizun, sentimentuen jarraitasun, ez barne mundurik (agergarririk, alegia). Jela puskak Antartidako itsasoan. Bat-batean eszenan agertu egiten dira, kito. Etorri bezalaxe desagertu. Klandestinitateko ager-ezkutaketak.

Horrela momentuak izugarriko balioa hartzen du nobelan. Istanteko protagonista bihurtzen da. Autentikoa, istanteko zirrara higigabeak besterik ez dago. Istanteko pentsamendua. Pertsonaiaren istanteko izaera. Denbora, eta kontadizoaren erritmoa bera, izoztua. Nobela unean unekoaren deskribapen zehatz laburrak osatzen da: keinu bat, elkarrizketa bat, hunkimenarenigidura erreferinatu, ohartxo banai zientifiko edo tekniko, izpi labur bat, paisaia. Eszenatxokoa, diz-diz. Momentu irrealak. Pinguinoak bezala dira

lagun izoztuak, beren nortasun anonimoak Antartidako larrujantziaren pean ezkatuturik. Lagun izoztuak iraganik ez du; edo izan, bai, baina ezabatua, bera hura gabe bizi da (beste batek gordetzen du). Etorkizuna, ate itxi bat untzian. Beti beha bezala, hurrengo momentuan zein ziritutatik ihes egin. Istantea baino ez, bizitzea. Jende irreal gutzit erreala. Iragan etengabea dutenak dira azkenean pertsona irrealenak: 36ko abertzale exiliatuaren haurrak, memoriak munduan tokigabatuak. Memorian izoztuak.

Denborak ere (elaberriak denbora diferentek dauzka) jela puskak dira itsasoan. Denbora berdin da diferentek batera, galduak, lotura gabekoak, ez nondik ez nora. Garapenik edo, ez dago; teinkapen eta desenlazerik. Goioen, Josu-Armandoren, Maribelen denborak. Ando-

niren, Imanolen, Goioeren iragan zati sakabanatuak. (Orain berriro presente egiten direnak, memoria gutzit ezabatu denean). Orainaldi puska han-hemendik arripaladan bilduak. Bakioitzak bere istante iragangabea, bakioitzak bere memoria ezabatuaren min eta zauria bizi du. Egia da beren barne historia ezkutu batek antzekotzen dituela denak. Baina ez ditu lotzen. Mina istantekoa da, bakioitzarena da: bakioitzaren denbora, bere istante isila. Istante diferentek, elkarraren ondoan, bata besteari arrotz azken finean. Izoztuak.

Proiektu honekin Sarrionandiak apustu oso zaila jarri dio bere buruari, baina irabazi egin du. Izoztuaren ideiak ezartzen zituen esijentziatara, berak bakarrik dakien malgutasun horrekin plegatu ditu estiloa, pertsonaien agerpena, erritmoa, planteamendu guztia eta elementu de-

nak. Ezer ez da gertatzen eta nobela bixi-bixi bat da. Exiliatuaren mundua dena diz-dizka etengabe aldatzen ari da axalean; barnagoan ezer ez dago. Barnea apropos hutsa dago. Ez psikologia sakonik, ez tesi, ez mezurik. Mundu hau ez da mundu hauze besterik. Axala da. Baina bai axial multikolorea, narbarra, dizdiraz eta begiz beta, konplexua, irakurle faszinatuta daukana! Konplexutasun horri erantzuteko —mailaz maila—, nobelak atal ezberdinak ditu; atal bakioitzak bere autorea, bakioitzak bere denboraldirak: oraina, iragana, etorkizuna, elkar gurutzatuak; autore ezberdinen autore bat, gero, eta autorearen autorea, Sarrionandia. Honek, ikuspuntu eta istante bakioitzaren autonomia gordez, haiek bateratzeko, autoretza anizkoiaeren soluzio subtil oso fin bat asmatu baitu, ugaritasuna eta ezberdintasun sare gutzia handik zintziilik hedatzen dela. Irakurle arretatsua, pixka bat irudimenduak, gozatu egingo du josturari antzemanen.

Eta fondoan, urrungo beste

ANTTON MARI ALDEKOA

Gereziaga elkarteko presidentea

«Iurretan jaiotako eta, gertuko sentitzen dugu Sarrionandia. Hala ere, denona den idazlea da»

tur bekako epaimahai lanetan ibili zen Joxe Azurmendi bildu ziren atzo ekitaldian. Guztiek laudoriozko hitzak eduki zituzten Sarrionandiarantz, eta Aldekoka-Otalorak gogora ekarri zituen hura atxilotu aurretik elkarrekin igarotakoak. «Iurretan jaiotako eta, gertuko sentitzen dugu Sarrionandia. Hala ere, denona den idazlea da, han-hemengo», adierazi zuen. Arratsaldean, berriz, Sarrionandiarren omenezko ekitaldi arras hungigarria izan zen Durangoko Hitz liburu denda. Bertan, Aitzpea Azkorbeitiak eta Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsoariak lurretakoak idatziriko hainbat pasarte irakurri zituzten.

Durangoko azokako nobedadeen artean, *Lagun izoztua*-k ikusmin handia piztu du. Uñru egon arren, Sarrionandia jendeak gertu sentitzen duen idazlea dela erakusten du horrek. Egoera aldatuko den itxaropena, orde, ez da galdutik behar. *Lagun izoztua*-n bertan ageri den bezala: «Eta zure mentura Ulises baino ederragoa izango da, edonora joanda ere, egundo egon ez zaren lekura itzuliko zarelako».

kontinente izoztu bat lege, haurtzaro eta nerabezaro luze baten filmari ari da etengabe igarotzen, istorioaren horizontean. Bigarren (agian hobe: hirugarren) exilioaren nerabezaro unibertsalaren kontinentea.

Nobela «politiko» bat da noski. Eta Sarrionandiar berriro erakusten du —dibertitiko balu bezala— militantzia eta literatura-aren arazoan sinplekeriek ez dutela ezer balio. Liburu errealista da, ez ideologikoa. Irakurleak ez daki nora doan, baina grinaturik segitzen dio exilio bideari, orriak utzi ezinda. Lerrotz lerro labanduz, sentsibiltate eskisito bat doa dastatzen, ezustekoz ezusteko, esaeran, bat-bateko ateraldian, gogoeta dekadatxoan hor, deskribapen doi-doi, azkeneko detallaraino dena landu-landuan. Kolektibismo, hotsak. Mila paisaia modu, handi eta txiki, batzuk monumentaltak. Antartida guztia, acibidez. Zaila egiten da sinestea, ez duela bere begiek in ikusi.

Nobela handi bat, prosa gozatsuan: literatura bikaina. Sarrionandiar su hotza asmatu du.

Anjel Lertxundi: «Ni poetikoaren inplikazioa ezinbestekoa da»

'Mentura dugun artean' sormenaren inguruan dituen «obsesioen» saio literarioa da


Amagoia Mujika | DONOSTIA

Literaturaren inguruan buruhausteak, esandakoak eta esaten ez direnak, obsesioak eta beste kontu asko izan ditu aspaldian Anjel Lertxundik buruan bueltaka. Idazlearen bideari buruz, fikzioaren inguruan, idazlearen nortasunaz eta inplikazioaz. Horiek denak ideietan, zirriborroetan, hitzaldietan eta liburu azpimarratuetan zituen. Aspaldian «obsesio errekurente» bihurtu zaizkionak bildu eta forma ematea erabaki zuen, sistematizatzea, gurean ohikoa ez den saiakera literario bat egitea, «literatur saioak eskatzen duen moduan, literarioki, hizkuntza poetikoa erabiliz». Horren ahalegina da *Mentura dugun artean* liburua (Alberdania). Ahalegin hori zertan den azaldu zuen atzo Lertxundik, eta Ibon Sarasola izan zuen solaskide literario. Hark aipatu zituen liburuaren emaitzak, baita jardun hori buruz dituen iritziak eman ere.

Lertxundi, obsesioak papelean jartzeko erabakia hartu ondoren, eleberririk bilakatzeko saiatu zen. «Elementu garrantzitsua da hori liburuan. Asko erabiltzen da egun eleberririk guztia biltzen duen zakua dela, eta nik hori egun dut». Saiakera literarioak beharrezkoa duen «doakotasunarekin» heldu dio lanari. Bere «gorabeherak askatu eta betiko ideiak plazerrez transmititzen» saiatu da, berantzat idazlearen inplikazio pertsonala eta plazera oso garrantzitsuak baitira. «Literaturaren inguruan akademizismo gehiegi dago, pedanteria gehiegi, eta azkenaldian uste dut gauza garrantzitsua falta dela: idazlearen beraren inplikazio pertsonala. Obra literarioan zerbaite garrantzitsua badago, ni poetikoaren inboluntariotza da». Idazleak duen bagaierekin testuari ekin, testua martxan jarri, eta «bideratzen ahalegindu ni poetikoaren inplikazio osoarekin, ondorio eta arrisku guztiekin, inplikazio hori gabe ez baitu maila literarioerik lortuko, ez du testuaren duintasunik lortuko. Ez dago beste biderik».

'**Clark**, iraganaren eta etorkizunaren arteko mugarri

Beste biderik ez dagoela konturatzeke, denbora behar izan zuen, «gehiegi agian». *Carla* (1989) liburuarekin hartu zen

**ZIENTZIA ETA FIKZIOA**

Denbora baino haratago

Bide zientifikoa eta poetikoa oso antzekoak dira Anjel Lertxundirentzat eta Ibon Sarasolarentzat. «Ez dago zientzia eta literatura egiterik asmenetik ez badago». Bat datoz horretan, eta funtsezkoa ez da jakituria zaku bat izatea, nork bere eskuetan duenarekin asmatzea baizik. «Ez dago Newtonen grabitate unibertsalaren ipuina baino politagorik», Sarasolarentzat, «lege berak, ipuin berak gobematzen du. Sagarra erortzen jende guztiak ikusi zuen, baina ipuin bateko gai egokia zela Newtonen ikusi zuen, eta 300 urte geroago oraindik lege horrek gobematzen du». Gai horren harira, honela dio Lertxundik bere liburuan: «Obra bat ez da handia bere garaiarekin eta bere denborarekin bat egiten duten elementuak dauzkalako, denbora eta garai hori baino haratago doazen elementuak dituelako baino».

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea

«Ez dago beste ezer beste saio literarioetan ez dagoenik. Bizitzari, arteari eta sormenari buruzko kezak»

horretaz. «*Carla* bitartean badago askotan aipatu dudana parentesi bat. Xabier Letek esaten duen moduan, gaizki ulertutako zerbitzuko lanean egindako lan literario bat. Hau da, ni poetikoak eskatzen

IBON SARASOLA

Euskaltzaina

«Ez da erori literatura kritikan. Lertxundiren bidea poetikoa da, galdua genuen literatur saiakera»

duen horri erantzun beharrean, beste kanpoko gauza batzuei erantzuten ahalegintze bat. Izan liteke militantzia politikoa, didaktismoa, une bateko urgutzia bat, edo editore batek momentu jakin batean

zulo bat estali nahiarri emandako erantzuna». Baina ordu arte egiten zuen literatura Bernardo Atraxagaren *Obabakoak*-ek «suntsitu» egin zuen, «krisia» izan zen, eta egoera horretan, erretiratzearan eta bere lekua topatzearan artean, aurrera egitea erabaki zuen. «Oso argi ikusi nuen aurrera egiteko aukera bakarra ni poetikoari erantzuten ahalegintzea zela, eta horrek funtzionatzeak bost axola. Leialtasun poetiko horren produktua da *Mentura dugun artean*».

Ibon Sarasolak, kaleratu berri den liburu horri berari buruz hitz egiten hasi aurretik, *Carla* izan zuen ahotan. «Lertxundi orduan hasi zitzaidan interesatzen. *Obabakoak* eskal literaturarako halako zirra bat izan zen, eta euskal literaturgile asko ez ziren konturatu. Uste dut *Carla* horri emandako erantzun bat dela. *Carla* frakaso bat da, baina oso interesgarria da zer bide jorratu behar den ikusteko». *Carla* rekin hartutako bideak eman dio fruiturik Lertxundiri, Sarasolak dioenez. «*Otto Pette Obabakoak* bezala inflexio puntu bat izan da euskal literaturan. Uste dut idazle ohartuenek beste modu batera idazten dutela *Otto Pette*-z gero».

Mentura dugun artean «jardun ederra da», Sarasolarentzat. «Ez da erori literatur kritika den horretan, Lertxundiren bidea poetikoa da, gure artean galdua genuen literatur saiakera, eta hori literatura asko tartekatuz lortzen du, fikzioarekin, eta hori da niri interesatzen zaidana. Zaila da fikzioa egitea, guk sortua baita. Fikzioa ezin daiteke edozer gauza ez errealitatean bezala. Lege zorrotzagoak ditu».

Betikoak, nor bere moduan

Fikzioa egiteko Lertxundik ez du beste munduko gairik erabili. «Ez dago ezer beste saio literarioetan ez dagoenik. Artearen garapena eta, nola ez, sorkuntza lana, kezak, obsesioak, bizitza eta heriotza. Gauza efimeroak eta irauten dutenak, biren arteko kontrasteak». Izan ere, horiek baitira betidanik sortu diren konturak, eta «ez dago beste sekreturik. Idazleak egin dezakeen gauza bakarra da, mundu horretara aipaltasunaz inestetiz saiatzea eta auzardia ukatu gabe. Auzardiarik gabe ez dago literaturarik».